DONOSTIAN

BILTOKI ZARREAN

Abenduaren 21-an

Artzaldian eta gabean bilduzan sekulako jendia ikustera Euskaldun-Fedeak jarri zituben lanak.

Guk sentigenuben atsegiña izandu zan guztiko zorionekoa.

Igarri genuen, urteró ta obetuago egiten zutela lana Euskaldun-Fedeako gazteriyak.

Gizasemeen tartean, biltzen dira ere, mirabe guztiz fiñak, batzarrearen billeran, eta egon ziran ederki; jendia etzan aspertu adiarasitzen bere atsegiña.

Bada, emendikan, bigaltzendiogu, alaba donostiarrari erneari, aiñ ondo egondu ziranari, chaloak ugari eta beren izenak naiditugu ekarri onera, jakin dezaten euskaldunak: Biktorina Artola, Rosario Artola, María Kasal eta Biktoria Arrieta.

Gañera, euskal festa guziya izanduzan chit ederki moldatuba.

Eta orduko oroitza izango degu gogoan.

MENDIZ-MENDI